

gaitu.eus

SARTU
ETA EMAN ZURE AHOTSA



Gaitu proiektua

BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK,

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO



Gaitu proiektua

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan

Erronka berri bat dugu euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu.

Hizkuntza gutxiak ez daude enpresa teknologiko handien asmoetan, eta euskara, guk euskaldunok sartu behar dugun mundu digitalean.

Horretarako, milaka ahots behar ditugu, milaka grabazio ordu euskaraz.

Common Voice euskaraz

Ekimen irekia da, irabazi-asmorik gabea, kolaboratiboa eta orain masiboa bihurtu nahi dugu.

105 hizkuntzatan hasiak dira Common Voice-en ahots ekarpenak egiten, eta ia beste hainbestetan prestatzen ari dira. Oraintxe (2023ko ekainean), hauek dira datu esanguratsuenak:

Ingelesa Orduak 3185 Hiztunak 86463 Balioztatzeen aurrerapena 75%	Kinyaruanda Orduak 2387 Hiztunak 1085 Balioztatzeen aurrerapena 84%	Gaztelania Orduak 2242 Hiztunak 25034 Balioztatzeen aurrerapena 20%
Frantsesa Orduak 1058 Hiztunak 17228 Balioztatzeen aurrerapena 88%	Katalana Orduak 2859 Hiztunak 31410 Balioztatzeen aurrerapena 67%	Euskara Orduak 150 Hiztunak 1241 Balioztatzeen aurrerapena 68%
Esaldiak 1659712	Esaldiak 1404853	Esaldiak 1079313


gaitu.eus

Auzolanean egingo dugu

Elkarlana sustatzen ari gara, proiektuan eragile asko inplika daitezten. Erakunde handiak zein txikiak, pribatuak zein publikoak, azken finean, gizarte osoa.

Eta guztion artean sortuko dugun ahotsen datu-basea gero teknologia enpresa guztiek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko, euskaldun guztion onurarako.

Lagundu iezaguzu eragile eta herritar euskadunek proiektu honetan parte har dezaten.



Zure ahotsa garrantzitsua da

Ahots asko eta askotarikoak behar ditugu, milaka: adin tarte, genero eta mota guzti-guztietakoak. Eta zurea ere bai, noski.

Horretarako sartu hona, mesedez:

gaitu.eus

Eta grabatu 30-300 esaldi bitartean.

Oso erraza da.

Guztion artean ekarpen polita egingo diogu gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenerari.